XEDAPEN OROKORRAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA
ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3310

122/2026 DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak nekazaritzako aseguru konbinatuen arloko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko hartutako akordioa formalizatzeko dena.

Transferentzien Batzorde Mistoak hartutako erabakiaren 2. artikuluan ezarritakoa betez (irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erabakia), eta bertan ezartzen diren formalizazio-izapideak betetze aldera, dekretu honen xedea da, alde batetik, formalizatzea Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak 2026ko ekainaren 22an egin zuen osoko bilkuran hartutako erabakia –erabaki horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio nekazaritzako aseguru konbinatuen arloko eginkizunak eta zerbitzuak–, eta, bestetik, dagokion sailari atxikitzea eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak.

Horren ondorioz, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuak, Ogasun eta Finantzetako sailburuak eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2026ko uztailaren 21ean egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Formalizatzea Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak 2026ko ekainaren 22ko osoko bilkuran hartutako erabakia, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen baitzaizkio nekazaritzako aseguru konbinatuen arloko eginkizunak eta zerbitzuak, uztailaren 15eko 603/2026 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan. Halaber, agintzea errege-dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratu dadila, dekretu honen eranskin gisa.

2. artikulua.– Eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikita geratzen dira.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko uztailaren 21ean.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAYA BARREDO MARTÍN.

ERANSKINA, UZTAILAREN 21EKO 122/2026 DEKRETUARENA

603/2026 ERREGE DEKRETUA, UZTAILAREN 15EKOA, ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREN NEKAZARITZAKO ASEGURU KONBINATUEN ARLOKO EGITEKOAK ETA ZERBITZUAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI ESKUALDATZEARI BURUZKOA

Konstituzioaren 149.1.13 artikuluak Estatuari eskumen esklusiboa esleitzen dio jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarriak zehazteko eta horren koordinazio orokorra egiteko. Konstituzioaren 149.1.11 artikuluak, halaber, Estatuari eskumen esklusiboa aitortzen dio kreditua, bankuak eta aseguruak antolatzeko oinarriak ezartzeko.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartua) 10.9 artikuluan eskumen esklusiboa esleitzen dio EAEri nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloan, eta orobat, 10.25 artikuluaren bidez, eskumen esklusiboa ere Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoa ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera sustatzeko, garatzeko eta planifikatzeko. Era berean, Autonomia Estatutuaren 11.2.a) artikuluaren arabera, EAEk eskumena du aseguruen arloko Estatuaren oinarrizko arauak legez garatzeko eta betearazteko bere lurraldean.

Nekazaritza Aseguru Konbinatuei buruzko abenduaren 28ko 87/1978 Legeak arrisku anitzeko nekazaritzako aseguru konbinatua ezartzen du, nekazaritza-, abeltzaintza-, akuikultura- eta baso-ekoizpenei aplikatzekoa. Haren eremua Espainiako Estatuaren lurralde osoa izango da, eta kudeaketa eta administrazioa nekazaritza-administrazioaren deszentralizazio-irizpideen arabera egingo dira, autonomia-erkidegoen autonomia-estatutuek haiei buruz xedatzen dutena albo batera utzi gabe.

Eta, azkenik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak ezartzen dute zer eratan eta zer prozeduraren bidez eskualdatu behar zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoari Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

Arau-aurreikuspen horiek oinarri hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Batzorde Mistoak, 2026ko ekainaren 22an egindako bileran, nekazaritzako aseguru konbinatuen arloan Estatuko Administrazioak dituen eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko akordioa hartu zuen. Akordio hori Jaurlaritzari helarazi zitzaion, errege-dekretu bidez onar zezan.

Ondorioz, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatzen dena betez, Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko ministroak proposatuta eta Ministro Kontseiluaren 2026ko uztailaren 14ko bileran aztertuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Batzorde Mistoaren erabakia onartzea.

Onartu egiten da Transferentzien Batzorde Mistoak –Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusten da– 2026ko ekainaren 22ko osoko bilkuran hartutako erabakia; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoari nekazaritzako aseguru konbinatuen arloko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzea. Errege-dekretu honen eranskin gisa dator transkribatuta erabakia.

Bigarrena.– Eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzea.

Ondorioz, Estatuko Administrazioak nekazaritzako aseguru konbinatuen arloan dituen eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio, Batzorde Mistoaren Akordioan agertzen den moduan eta bertan zehazten diren baldintzetan.

Hirugarrena.– Eskualdatzearen eraginkortasun-data.

Batzorde Mistoaren erabakian adierazten den egunetik aurrera izango du eragina eskualdatzeak.

Laugarrena.– Argitalpena eta ondorioak.

Errege-dekretu hau aldi berean argitaratuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA, UZTAILAREN 15EKO 603/2026 ERREGE DEKRETUARENA

Jorge García Carreño jaunak eta Begoña Pérez de Eulate González andreak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aipatzen den Batzorde Mistoko idazkariak direnez, hau

ZIURTATZEN DUTE:

Transferentzien Batzorde Mistoak, 2026ko ekainaren 22an egindako osoko bilkuran, erabakia hartu zuela nekazaritzako aseguru konbinatuen arloko Estatuko Administrazioaren eginkizun eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko, ondoren zehazten den moduan:

A) Eskualdatzea babesten duten konstituzio-, estatutu- eta lege-arauen erreferentzia.

Konstituzioaren 149.1.13 artikuluak Estatuari eskumen esklusiboa esleitzen dio jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarriak zehazteko eta horren koordinazio orokorra egiteko. Konstituzioaren 149.1.11 artikuluak, halaber, Estatuari eskumen esklusiboa aitortzen dio kreditua, bankuak eta aseguruak antolatzeko oinarriak ezartzeko.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartua) 10.9 artikuluan eskumen esklusiboa esleitzen dio EAEri nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloan, eta orobat, 10.25 artikuluaren bidez, eskumen esklusiboa ere Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoa ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera sustatzeko, garatzeko eta planifikatzeko. Era berean, Autonomia Estatutuaren 11.2.a) artikuluaren arabera, EAEk eskumena du aseguruen arloko Estatuaren oinarrizko arauak legez garatzeko eta betearazteko bere lurraldean.

Nekazaritza Aseguru Konbinatuei buruzko abenduaren 28ko 87/1978 Legeak arrisku anitzeko nekazaritzako aseguru konbinatua ezartzen du, nekazaritza-, abeltzaintza-, akuikultura- eta baso-ekoizpenei aplikatzekoa. Haren eremua Espainiako Estatuaren lurralde osoa izango da, eta kudeaketa eta administrazioa nekazaritza-administrazioaren deszentralizazio-irizpideen arabera egingo dira, autonomia-erkidegoen autonomia-estatutuek haiei buruz xedatzen dutena albo batera utzi gabe.

Eta, azkenik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak ezartzen dute zer eratan eta zer prozeduraren bidez eskualdatu behar zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoari Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

Arau-aurreikuspen horietan oinarrituta, Estatuko Administrazioak nekazaritzako aseguru konbinatuen arloan dituen eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko akordioa formalizatu behar da.

B) Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkion eginkizunak eta zerbitzuak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio bere lurralde-eremuan orain arte Estatuko Administrazio Orokorrak bete dituen nekazaritza-aseguru konbinatuen arloko zenbait eginkizun eta zerbitzu. Honako hauek, zehazki:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratutako ustiategien titular diren ekoizleei nekazaritza-, baso-, abeltzaintza- eta akuikultura-aseguruen polizak kontratatzeko dirulaguntzak izapidetu, eman eta ordaintzea, berrikusi, kontrolatu eta, hala badagokio, zehatzeaz gainera, nekazaritzako aseguru konbinatuaren primaren kostuaren zati bat ordaindu ahal izateko. Horretarako, dagokion hitzarmena sinatuko da Agrupación Española de Entidades Aseguradoras de los Seguros Agrarios Combinados S.A.rekin (AGROSEGURO).

b) Nekazaritzako aseguru konbinatuaren hartzaile eta aseguratu potentzialei, beren lurralde-eremuan, informazioa ematea aseguru-lerro bakoitzerako onartutako eta Agrupación Española de Entidades Aseguradoras de los Seguros Agrarios Combinados S.A.k (AGROSEGURO) aplikatutako baldintza bereziei eta tarifei buruz, Estatu osoan indarrean dagoen funtzionamendu-sistemaren arabera.

2.– Eskualdatzen diren eginkizun eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoak Nekazaritzako Aseguruen Urteko Planean nekazaritzako aseguruetarako aurreikusitako dirulaguntzak bere aurrekontuen kontura osatzeko duen ahalmenari kalterik egin gabe ulertuko dira, baimendutako gehieneko mugaraino. Era berean, urteko plan horretan sartuta ez dauden nekazaritzako aseguruetarako dirulaguntzak ezartzeko ahalmena alde batera utzi gabe ulertuko dira.

C) Estatuko Administrazioak beretzat gordetzen dituen eginkizun eta zerbitzuak.

Estatuko Administrazioaren esparruan, eremu horretan berari dagozkion gainerako eginkizunek eta zerbitzuek jarraituko dute, bereziki Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Urteko Plana egitea eta onartzea, bai eta Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari esleitutako berraseguru publiko eta nahitaezkoaren eginkizunek ere.

D) Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoak batera eta partekatuta dituzten eginkizunak, eta lankidetza-modu instituzionalak.

1.– Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoak lankidetzarako bide egokiak izango dituzte nekazaritzako aseguru konbinatuen arloan. Horretarako, hitzarmenak, akordioak edo bestelako lankidetza-tresnak egingo dituzte, nekazaritzako aseguru konbinatuen sistemaren efikazia eta efizientzia ahal den neurrian handitzeko. Tresna horiek bi administrazioen arteko lankidetza-mekanismo eraginkorrak sustatuko dituzte, sistema horren kudeaketan erabateko koordinazioa lortzeko.

2.– Gai honetan behar bezalako lankidetza izango dela bermatzeko, jarraipenerako eta koordinaziorako batzorde misto bat sortuko da. Batzorde horren osaera parekidea izango da, eta batzordekideak sei izango dira, hiruna kide izendatuko baitituzte Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak. Batzorde misto horrek aurreko paragrafoan aipatutako hitzarmen eta akordioak hartuko ditu –eskualdatutako eginkizunak ezartzeko prozesua erraztuz– dagozkion eginkizunak betetzean jarraipena egingo du, dagokion informazioa bidaltzea antolatuko du, eta akordio hau interpretatzean, gauzatzean eta betetzean sor daitezkeen arazoei helduko die.

Zehazki, Jarraipen eta Koordinazio Batzorde Mistoak lankidetza eta koordinazioa sustatuko ditu nekazaritzako aseguru konbinatuen sistemaren esparruan, sor daitezkeen egikaritze-arazoei helduz eta kudeaketa horri buruzko gatazkak eta desadostasunak konponduz.

Era berean, batzordekide titularrek aztertzea eskatzen duten gaien espezifikotasunaren arabera, komeni diren pertsonek parte hartu ahal izango dute Batzorde Mistoaren bileretan; inola ere ez dute titular horien ordezkaritza bereganatuko. Era berean, gai espezifikoak garatzeko lantalde mistoak sortu ahal izango dira batzorde horren tutoretzapean.

E) Eskualdatzen diren eskubideak eta betebeharrak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio eskualdatutako eginkizun eta zerbitzuei dagozkien eskubide eta betebeharrak. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoa subrogatuko da Estatuko Administrazioak duen posizioan, erantsitako 1. zerrendan agertzen den eskualdatzeak eragindako enkarguan.

2.– Zerrenda horretan zuzenketarik edo aldaketarik egin behar bada, administrazio biek aurretiaz egiaztatuta egingo dira. Horretarako, Transferentzien Batzorde Mistoak ziurtagiri bat emango du.

F) Eskualdatzearen eraginpeko aurrekontu-kredituak.

Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari lotutako estatu-mailako urteko kostu osoa 2. zerrendan jasotzen da.

G) Eskualdatzen diren eginkizun eta zerbitzuen dokumentazioa eta espedienteak.

Eskualdatzen diren eginkizunen eta zerbitzuen dokumentazioa eta espedienteak hiru hilabeteko epean entregatu behar dira, erabaki hau onartzen duen errege-dekretua argitaratzen denetik aurrera.

H) Eskualdatzearen eraginkortasun-data.

Erabaki honen bidez onartu den zeregin eta zerbitzuen eskualdatzea 2028ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Eta hala ager dadin, ziurtagiri hau ematen da, Madrilen, 2026ko ekainaren 22an. Batzorde Mistoko idazkariak, Jorge García Carreño jauna eta Begoña Pérez de Eulate González andrea.

1. ZERRENDA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI EGINDAKO ESKUALDATZEAK ERAGINDAKO ENKARGUEN ZERRENDA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA ZERRENDAKO ENKARGUAN SUBROGATZEA

Kontzeptua	Zerbitzua non emango den	Enpresa	Hasiera-data	Amaiera-data	2026ko aurrekontua (euro)	2027ko aurrekontua (euro)	Eskualdatutako ehunekoa
«Nekazaritzako Aseguruetarako Dirulaguntzak Kudeatzeko Sistema (SGSSA)» aplikazio korporatiboan integratutako garapen berriak eta mantentze ebolutiboko lanak	Madril-ENESA	TRAGSATEC	2025-06-09	2027-06-08	643.062,79	366.934,46	% 0,76

2. ZERRENDA

ESTATU-MAILAKO URTEKO KOSTU OSOA

(EURO MILATAN, 2023)

21. atala: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa

Aurrekontu-aplikazioa	Zenbatekoa (milaka eurotan)
21.01.000X.41400	275.735,35
21.01.000X.41401	838,59
21.01.000X.714	426,04
21.01.411M.22100	11,19
21.01.411M.22101	0,13
Guztira	277.011,30

10. atala: Kontratazio Zentralizatua

Aurrekontu-aplikazioa	Zenbatekoa (milaka eurotan)
10.01.923R.22700	16,25
10.01.923R.22701	18,62
Guztira	34,87